

**EIKA KOOPERATIBARA BISITA. 50. URTEURRENA
VISITA A LA COOPERATIVA EIKA. 50 ANIVERSARIO**

2024-01-19 Etxebarria 19-01-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, alkate jauna, zaudeten beste arlo batzuetan herri ordezkariok ere izanik, EIKA-ko arduradun eta kideok, Mondragon Corporation-eko presidentea, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko ekitaldi berezi honetara gonbidatzeagatik eta parte hartzeko aukera emateagatik. Plazerra da hemen egotea eta zorionak EIKA 50 urteko ibilbide oparo honengatik!

Mende erdia ez da egunero betetzen. Oso zaila da horrenbeste urtez martxan egotea. Izan ere, 50 urtetan denetik bizi izaten da. Momentu gozoak, noski, eta baita momentu saminak ere.

Nire ustez, bigarren horiek egiten gaituzte indartsuago. Gure burua trebatzen laguntzen digute. Formatzaileak direla esan genezake.

Bada, zorionak egun zail horietan ere erakutsitako kemenagatik. Posible dela sinesteagatik. Kemen eta grin hori gabe ezinezkoa izango litzateke etengabeko hazkundera mantentzea.

Hazkunderaren ibilbide hori mantentzea beharrezkoa da. Zentzu horretan, gaur, berri positibo bat ezagutu dugu. Euskadin %7-ko langabezia tasarekin itxi dugu laugarren hiru hilekoa, azken 15 urteotako langabezia tasarik baxuena. Lorpen kolektibo horrek lankidetzan jarraitzeko arrazoi gehiago ematen dizkigu.

Lankidetzeta da arrakasta lortzeko bidea. Eredua horretan benetan sinisten dut.

Indibidualismoaren aurrean, egozentrismoaren aurrean, auzolana, talde lana eta kooperazioa defendatzen ditugu.

Mundu globalizatu honetan lehiakorrak izaten jarraitu behar dugu eta lehiakortasun hori inplikaziotik bakarrik etorriko da, guztion benetako inplikaziotik.

EIKA bada 'auzolan' horren adibide garbia. Gure herrian hain errotuta dagoen kooperatiben bidea hartu zenuten eta eredu hori mantendu eta garatu duzue.

Euskaraz lan eginez lortu duzue.

Atzo bertan eman genion hasiera "Languages lanean" kongresuari, lanaren esparruan hizkuntzen kudeaketari buruz gogoeta egin eta etorkizuneko erronkak zehaztu nahi dituen lehen nazioarteko topaketari.

Badakigu hizkuntzei benetako garrantzia ematen dieten enpresak edo kooperatibak lehiakorragoak direla.

Bada, ez zait zuena baino adibide hoberik bururatzen. Eskerrik asko ematen diguzuen ereduarengatik.

EIKA nació hace medio siglo para dar respuesta a un objetivo: ofrecer una oportunidad laboral a las mujeres de la comarca. No solo habéis logrado vuestra meta. Habéis conseguido crecer con el paso de los años.

Lo hacéis poniendo en práctica un modelo que ha cosechado muchos éxitos en nuestro país y que está arraigado en nuestra cultura: el cooperativismo.

Euskadi, nuestro tejido industrial y cualquier cooperativa o empresa de nuestro país, sea del tipo que sea, no puede afrontar su futuro a través de la mera suma de individualismos. Nuestro compromiso es y debe seguir siendo colectivo.

Es necesaria nuestra implicación en ese proyecto compartido. Dejar de lado intereses particulares, tratar siempre de buscar lo mejor para todas y todos. Solo así podremos avanzar y consolidar nuestro tejido industrial. Solo así podremos lograr sumar competitividad y bienestar.

Hoy hemos conocido un nuevo dato positivo. Euskadi cerró el cuarto trimestre del pasado año con una tasa de paro del 7%, la más baja en los últimos 15 años. Un logro colectivo y una nueva razón para seguir trabajando desde la cooperación.

Honegatik guztiagatik, beraz, eskerrik asko EIKA erakutsi diguzuen bideagatik eta eskaintzen diguzuen eredu bikainarengatik.

Lehen ikusi dugu EIKA izanda da eta EIKA dago etorkizuna begira. Segi ondo egiten duzuen guztia praktikara eramaten.

Zorionak guztioi eta eskerrik asko!